

Aretxagazeta

Aretxabaleta
1995eko martxoak 9

Aratusteak
gogoratuz

Karapaixoa
udaberriko
oparitxo

Badator
Korrika



**Aratz taldeak
antolatutako egun
arrakastatsua**

Ipin ezazu martxan
 5.000.000 pta.
 %10 garbian (UTB %9,14)
 eta 3 urteren buruan...



Ondare Aseguratua:

- Interes garantizatua.
- %25eko atxekipen fiskalik gabe.
- Inbertsioak irauten duen bitartean ez duzu zergarik ordainduko errenta-aitorpenean.

Ondare Aseguratua Lagun Aro Vida S.A.ren Bizi Asegurua da.

Zatoz Euskadiko Kutxaren sukurtsaletara edo hotsegizu 901-333 444 telefonora.

Garantizatutako kapitalak.

1.000.000 pta.	3 urtera	1.275.000 pta.	Nominala %9,16 (UTB %8,43)
3.000.000 pta.	3 urtera	3.850.000 pta.	Nominala %9,44 (UTB %8,67)
5.000.000 pta.	3 urtera	6.500.000 pta.	Nominala %10,00 (UTB %9,14)

95-1-14tik aurrera dagoen eskaintza.

karapaixorik egin edo hartzen duzu?

Pilar Ibabe
(Etxekoandrea)

Bai, urtero egin izan dut ogizko karapaixoa. Horrela jarraitzeko asmoa daukat txikiak diren bitartean edo ezkontzen diren artean.



Ion Iñaki Larrabe
(Langilea)

Ez, ez dut inoiz jaso ezta egin ere. Gure etxean ez da horretarako ohiturarik sekula egon baina ezagutzen dut ohitura hori.



Mikel Iturbe
(Langilea)

Bai, urtero jaso izan dut amamaren edo izebaren eskutik, baina azken urteotan irregularrak izaten ari da. Ogizkoa egin izan didate.



Oneka Davila
(Ikaslea)

Bai, urtero jasotzen dut. Nire amapontekok, hau da, nire izebak oparitzen dit eta boilozkoa egiten dit.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

ESKUTITZAK

Aretxagazetako batzar nagusia

Agur t'erdia bazkideok,

Aurtengoan ere ohizkoa den moduan eta beharrezkoa ARETXAGAZETAKO batzar nagusia egitekotan gara. Horregatik eskutitz honen bitartez batzar honen berri eman gura dizuegu. Batzarra hilaren 17an, eguakotxa, izango da arratsaldeko 7,30etan Udaletxeiko pleno aretoan.

Hortaz, bazkide guztiok batzarrerako gonbidapena egiten zaizue. Eskertuko genuke zuen partaidetza. Besterik gabe, laster elkar ikusiko garelaotan, agur bero bat,

Aretxagazetako Batzordea

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51

FELIX PAGALDAY

Deba Garaiko

Biona

Pentsuen Banatzailea

Laborantza tresnak

Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33

TOLDOS

LETE

Kataide Poligonoa
14 Pabiloia ☎ 79 23 83

ARATZ taldeak antolatutako egun arrakastatsua



Goenkaleko lagunekin atxabaltar kuadrila

Aurtengo aratusteei sekula baino azkarrago eman zaie hasiera. Honen arrazoa Aratz taldeak, Atzeratuen Integrazioa Atxabaltan, antolatu zuen egun berezia izan da.

GOENKALEKO lagunak ekarri zituzten eta ikusi ez zuenak ez luke sinistuko Eguen Zuri egunean herriko plazan izan zen iskanbila. Herriko gaztetxoek zorakuta ibili ziren GOENKALEKO lagunak ikusteko. ARATZ taldeko kideek egun horretako balorazio baikorra egin dute. Atzeratuek oso ondo pasatu zutela adierazi digute. Honetaz gain atzeraturik ez zen etxean gelditu, denek irten zuten kalera eta oso kopuru handia biltzea lortu zen. Aurrera begira ARATZ taldekoek ekintza berriak antolatu nahi dituzte, hori da behintzat euren asmoa.

Aratusteak gogoratu

Aratuste igandez eguraldi txarra egin bazuen ere ikuskizun bitxirik ez zen faltatu.

Honen adiezgarri da Durana kalean izan zen ezkontza, **Elena Infanta** eta **Jaime Maritxalarrena** hain zuzen ere.

Baina bi pertsonaia hauez gain izan ziren beste pertsona ezagun batzuk ere ezkontza horretan, esaterako, **Erregea, Erregina, Erregearen ama, Carlos Printzea, Cristina, Carlos Galeseko Printzea,**

Nieves Herrero, apaiza, Marinako Almirantea eta ezkontzaren kontra zegoen **errepublikar** bat. Honetaz gain "Antonia 3"eko kamara ere bertan izan zen grabaketa lanak egiten. Gainera egun osoan zehar grabatzen aritu zen, Santa Ageda mutilak ere gustatu zitzaizkion itxura denez.

Ikuskizun polita izan zen. Beraiek eskuratu zuten aratuste lehiaketako **lehen saria**. Merezire, merezi zutela esan beharra dago.



Infanta Elena eta Maritxalarren ezkontza Durana kalean

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

DON VIDEO

PELIKULARIK
BERRIENAK

Lezamako Merkatal Zentrua
ARETXABALETA

MASAILARIAK

MASAIK ZARAIA

MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi 13-1-A
Tfnoa: 79 71 55

Eguraldi hotza baina giro beroa



“La Exquisita” txurroegileak izan genituen domekan Atxabaltan. Egin zituzten txurroak eta txokolate beroa aproposak izan ziren egin zuen eguraldirako. Hauena bai egun borobila, txurro goxoak egitez gain, bigarren postua ere irabazi zuten.

A ze pareta, gure Zipi Zape bikotea. Ez zen ez Zipi Zaperik faltatu domekan.



Atxabaltako aratusteak mundu osoan dira ezagunak horren adierazle da Hawaitik etorri zitzaigun emakume kuadrila .

JANTZI DENDA

ASENSIO

Mitarte Kalea, 12

Tel. 79 10 72

ARETXABALETAKO



**TABERNA-BERRI
JATETXEA**

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETAKO

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

**GARBITU
S. KÖOP**

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Ole Sevilla!!!

Ez genuen Azpeitiara joan beharrik izan zezen korrida ikusteko, argazkian ditugu herriko plazan toreatu ziren bi zezenak eta zaldiaq. (3. saria)



Arrantzaliak arrain fresko freskue saldu guran ibili ziren. (4. saria)



A ze kuadrila, "kantantzilo man" izenarekin. Izen be hori baino izen aproposaurik ez lukete topauko.



Jesukristo eta bere hamabi apostoluak ere izan genituen aratuste egunez herrian.

MARI-MERKE

.....
 Ihauterietarako
 mozorro guztiak

 Lezama Merkatal Zentrua
 ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
 ☎ 79 34 28
 ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak
 Errekararren, 3
 Tfnoa: 77 11 76

TXIMAK

Hileapaindegi mixtoa

Herriko Plaza, 5- Behea
 Tfnoa: 79 83 64
 ARETXABALETA



"Jalgi hadi plazara" lemapean dator aurtengo korrika

KORRIKA 9 gainean daukagu. Garazin martxoaren 17an hasiko da eta Gasteizen amaituko da martxoaren 26an.

Atxabaltatik martxoaren 23an pasako da, goizeko 6,30ak aldera. Testigoa Gellao ostean hartuko da. Ez gero lo ohean gelditu eta euskeraren alde denok korrika egitera.

KORRIKA TXIKIA

Txikienek ere ospatuko dute Korrika eta horretarako hainbat ekitaldi antolatatu dira martxoaren 22rako. Korrika txikian parte hartuko dute Almen Ikastolak, Kurtzebarri Es-

kolak, Santa Rita Haur-eskolak eta Pausokak. Bertan, haur eskolatik hasi eta O.H.O.ko 8.maila arteko haurrak izango dira protagonista.

Aurre-ekintza bezala hainbat gauza burutzea pentsatu da: ikastetxeetan esaterako, Korrika abestia ikasi, dorsalak margotu, mezua aztertu e.a.

Bestalde, martxoaren 11n herrian aurre-ekintza bat egingo da **Ortzadar taldearen** laguntzarekin.

Egitaraua hau izango da 2,30etan haur-eskolako haurrei aurpegiak margotuko zaizkie horretarako tailer batzuk antolatuko dira. Gero 3retan plazan katai bat egingo da haur guztiekin, eta 3:20etan Korrikako abestia kantatuko da.

Azkenik 3:30etan Korrika txikiari ekingo zaio. Hasiera Pausokan izango du, hemendik Loramendiraino joango da Durana kalea zeharkatuz, gero bide bera eginez plazaraino etorriko da, eta hor emango zaio amaiera korrika txikiari.



Meka marrazki lehiaketako irabazleak

II. Meka marrazki lehiaketako irabazleak

Martxoaren 7an II. Meka marrazki lehiaketako sariak banatu ziren.

Lehiaketaren gaia: "Nik, haundi egiten naizean.....izan nahi dut." zen.

Irabazleen artean ez dago atxabaltarrik, baina bai Almen ikastolako ikasle bat, Nahia Perianes hain zuzen ere. Guztira 600 lan inguru aurkeztu

ziren. Irabazleak ondorengoak izan ziren: 6 urtetatik 9 urte bitartekoak:

- 1go saria: Gorka Lete
 - 2. saria: Markel Agirre
 - 3. saria: Nahia Perianes
- 10 urtetatik 11 urte bitarteko irabazleak aldiz hauek izan ziren:
- 1.go saria: Nagore Ipiña
 - 2. saria: Ander Sanchez
 - 3. saria: Aitor Odriozola.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

Euskeraren Erabilera bultzatzeko hitzarmena

Azkenengo neurketen arabera % 45ak gutxigorabehera erabiltzen du Atxabaltan euskara eguneroko harremanetarako.

Siadecok egin zuen ikerketaren ondoren datu hauek hobetzeko hitzarmena lantzea proposatzen zuen. Baina zer da hitzarmena? Aretxabaletako Elkarteek beren barne funtzionamenduan, beste elkarteekin dituzten harremanetan, kalera begira antolatzen dituzten ekintzetan... euskeraren erabilera bultzatzeko hartzen duten konpromisua. Berau koordinatzen **LORAMENDI K.E.** eta **ARETXABALETAKO UDALA** ari dira. Talde guztiekin egon ondoren, hilabete honen bukaeran, oraindik data zehaztu gabe badago ere, egingo den ekitaldi publikoa prestatzen ari dira.

Guztiaren nondik norakoan berri izango duzue hurrengo Aretxagazetan

Loramendi K.E.

Loramendiren liburuaren berrargitarapena

Ez dago inolako zalan-tzarik, Aretxabaletak duen idazlerik sonatuena **Loramendi** dela, ikusi besterik ez da bere izena erabiliz eta goratzeko herrian dauden eta izan diren elkarte guztiak.

Halere **Loramendik** idatzi zuen liburua aspaldidanik agortua dagoenez, liburuaren berrargitarapena planteatu zen 1994. urtean. Berrargitarapen hau prestatzeko

Egia esan behar badut, Aretxabaletan euskaldun kopuru dexentea dago (1991ko datuen arabera %59,6a dira.). Erabilerari dagokionez ere, ematen du hizkuntzarekiko maila ona dela, (%45 inguruko erabilera.

Bilakaerari dagokionez esan daiteke 1981-91 urteen artean urteoro %1eko gehikuntza dagoela

Aretxabaleta eta euskara



*Ane Lore,
Udaletxeko euskara
zerbitzuko teknikaria.*

euskaldun kopuruari dagokionez, aldiz erdaldun elebakarrak urtero %1ean jeitxi dira.

Azken urteotan irakaskuntza arautuan egin den ahaleginari esker, gaztetxoan aldetik giro baikorra nabari da. Esan daiteke euskeraren ezagupena (ulermena bederen) erabat orokortu dela Aretxabaletako gaztetxoan artean eta gaur egun 18 urtetik beherako guztiak direla euskeraz ulertzeko gai.

Helduen euskalduntze-alfabetatzean ere nahiko matrikula egokiz ematen da Aretxabaleta bezalako herri batentzat; eta azken urte honetan aipatu behar Euskera Batzordearen bultzadaz guraso ez euskaldunei bereziki prestatutako klasean hasi direla, bestalde adierazi behar Trill emakume taldeak bultzatuta sortutako Alfabetatze Taldea ere.


*Euskararen aldeko herri-dinamika indartsua eta tradizio haundikoa da Aretxabaletan, talde horien artean nabarmenen eta Euskera Batzorde honekin elkarlanean ari dena **Loramendi K.E.** dela*

ardura Loramendi K.E.ak hartu zuen eta Aretxabaletako Udalak ekimenak izan ditzakeen kostuak estaltzeko 400.000 pta. eman zituen.

Hasiara batetan egin zen pikatze lanean zenbait

aldaketa direla eta, zertxobait atzeratu da argitarapen berria.

1994. urteko Euskera Batzordeko memoria



**LOGOPEDIA
ZENTRUA**

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

**T
X
i
L
A
R
B
R
A**



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35 –
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABAleta

BEIRALAN



KRISTALDEGIA
Loramendi 10 ☎ 79 81 28
Aretxabaleta

TXIMAK
Hileapaindegi mixtoa

Herriko Plaza, 5- Behea
Tfnoa: 79 83 64
ARETXABAleta

Goenkalekoekin berbetan

Jose Mari: Mikel Garmendia, 50 urte

Mertxe : Maria, 18 urte

Karlos: Joxe Krus Gurrutxaga 21 urte.

Don Luis: Dabid Errasti, 29 urte.

• **Aurretik aktore lanetan ibilita zaudete?**

J.M.: Hogeita hamazazpi urterekin hasi nintzen eta 13 urte daramatzat mundu horretan.

M: Herriko hainbat antzeleretan aritua naiz.

K: Eskolan antzerki lanetan ibilaia naiz eta duela urte batzuk ere telebistan lan batzuk egin nituen.

D.L.: Antzerki batzuk eginak ditut.

• **Nondik datorkizue antzerkirako zaletasuna?**

J.M.: Jaio nintzenean emaginak, honako hau esan zion amari: *"Joxepa, has tenido un hijo actor"*.

M.: Bihotzetik.

K.: Nire amak haurdun zegoenean antzeman zuen aktore izateko jaioko nintzela.

D.L.: Irakasle eskolan hartu nuen zaletasuna.

• **Zuen izaera pertsonalitatea eta tokatu zaizuen paperek antzik ba dute?**

J.M.: Jose Marik Mikel Garmendiaren ezaugarri asko

Aratz taldekoek antolatutako Eguen Zuri egunean ikuskizun ederra eskaini zuten Goenkaleko lagunek. Jose Mari, Mertxe, Karlos eta Don Luis atxabaltarra hemen izan genituen eta beraiak botatako pregoia entzuteko aukera izan genuen.



ditu. Gidoilariak bakoitzaren pertsonalitatea kontutan izanik egiten ditu gidoiak.

M.: Hasieran ez, baina orain bai.

K.: Gauza batzutan bai.

D.L.: Jatea eta edatea bioi gustatzen zaigu.

• **Zer anekdota izango zenukete kontatzeko?**

J.M.: San Martingo azokan nengoela, porruak eskatu nizkion baserritar bati. Harek burua jaso eta eskerrik asko esan zidan bEhin eta berriz. Eskerrak ematearen arrazoiaz galdetu nionean, hauxe erantzun zidan: *lehen baserriko lanak berandu bukatzen genituen, orain berriz 9,00etarako dena bukatuta izaten dugu Goenkale ikusi ahal izateko"*.

K.: Behin japonese batek bizkarrean jo eta autografo bat eskatu zidan.

D.L.: Grabatzen ari ginela, hiru pintxo jarraian jan behar izan nituen eta larrigura galanta sartu zitzaidan.

• **Zer da zailena zuentzako aktore lanetan?**

J.M.: Barre egitea, eta kamara aurrean hitz egitea.

M.: Negar egitea.

K.: Bai negar egitea eta baita barre egitea ere.

D.L.: Kamaren aurrean hitz egitea.

ITZIBER NIÑO
Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

Maritxu
Mertzeria
Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA

Amaia-Berri, S.L
Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia
Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

Artano
Taberna
Herriko Enparantza
ARETXABALETA

FOTO
Urkiola
Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

18
KELER
FELIX ARRESE
Edari Banatzailea
El León
Industrialdean
Tfnoa: 79 60 65

Karapaixoa, udaberriko oparitxo



Ogiz eginiko karapaixoa

Aurten ere, ohiturari jarraituz karapaixoa oparitzeko garaia heldu da. Garizuman sartzeaz bat, okindegi eta gozotegiak karapaixoz bete-ta agertzen zaizkigu. Baina inoiz pentsatzen jarri ote gara karapaixoen jatorriaz?

Garai batean ogia etxean egin beharra zegoenean, karapaixoa presentzia oso handia izan omen zuen gure artean. Ogia egitearen egunerokotasunari jarraituz, Garizuma garaian ogi berezi bat egiteak, ez omen zien buruhauste haundirik sortzen gure baserri-tarrei. Beraz, puntualki heltzen zitzairen gazteei senar edo emaztegaiei, apaiz, etab. urteroko oparitzeko karapaixoa.

Baserria izan da Euskal Herriko aintzinako ohitura zaharren san-tutegi eta gordelekua, eta base-rietan ogia egiteari utzi ziotenetik,

karapaixoa sekulako beherakada izan du. Bizimodu moderno eta kaletarren etorrerarekin batera, galtzen joan da herri askotan erritu hau. Zorionez, Atxabaltako herriak jakin izan du, agian inguruko askok baino hobeto, aintzinako zeremonia hau gordetzen. Ibaian behera joz gero, bere presentzia gutxiagotuz doa. Oñati eta Bergaran etxe batzutan gorde bada ere, hortik behera ez da ia ezagutzen. Aipatzekoak dira Arabako herrialdean Aramaio eta Bizkaian Mar-kiña, Elorrio eta eskualdea. Leku horietan tradizio bera mantentzen da, baina ogi erritual horri Mokotza deitzen diote.

KARAPAIXOA GAUR EGUN

Garizuma garaian aitapontekoek euren besoetakoei ezkondu artean urtero oparitzen dieten ogi hiruki eta 3 arraultzaduna da karapaixoa. Ez oso aspalditik, karapaixoiari osagarri berriak ere gehitu zaizkio, txorizoa, urdaiazpikoa eta sagarra adibidez. Adineko jendearen esanetan, karapaixoa ez omen zuen izaten horrelakorik lehen. Pentsa

*Aitamapontekoen
ohitura hor dago
aurten be karapaixo
esperoan nago
ia izaten dugun
bebingoan oparo
ogi gutxiago ta
txorizo gehiago*

Ion Iñaki Izarzelaia

daiteke gainera, txorizoa eta urdaiazpikoa ez direla Garizumako bigilia kontzeptuarekin bat datozen janariak. Horretaz gain, gozotegi batzuk badaramatzate bizkotxo eta arraultza txokolatze-kodun karapaixoa egiten. Ogitik pastelera emandako eboluzioa, gaur egungo gizartearen gustu eta bizimoduaren aurrerapenaren islada baino ez da, eta ogi zuria garai batean hain estimatua, atzera geratzen ari da egungo gizartearen preferentzia gastronomikoen zerrendan. Gure karapaixoen eginkizunean, ogiak dauka - oraindik eta oraingo - protagonismo nabariena.

Karapaixoa, garizuma garaian aitapontekoek euren besoetakoei ezkondu artean urtero oparitzen dieten ogi hiruki eta hiru arraultzaduna da.

JATORRIA ETA ESANAHIA


Batzuen ustetan, karapaixo hitza erderazko "cara de payaso" berbaren euskarapena da. Nolanahi ere, karapaixoa hemengo izena baldin bada ere, ogi erritual honen jatorria ez da inondik inora atxabaltarra, ezta euskalduna ere. Mediterranear eta erromatar kulturadun geografia guztian aurkitu ohi da ogi hau, eta garai batean izandako agerrera mendetan zehar galtzen joan ondoren, leku puntual eta konkretu batzuetan soilik iraun du gaur arte, Atxabaltan adibidez. Esanahiari dagokionez, desberdin-

du beharra dago bere jatorrizko esanahia eta gaur ematen zaionaren artean. Gaur egun, karapaixoaren oparia aiteponteko eta besoetakoaren arteko erlazioarekin identifikatzen da bakarrik. Bere jatorrizko testuingurutik desplazatuta, karapaixoaren esanahia nolabaiteko "errenta" sinbolikoarena bilakatua da. "Errenta" horren bitartez, aitepontekoak bere besoetakoarekiko hartuta duen erantzunkizunari aurrera egiten dio. Horrela, aitepontekoak urtero birbaiezen du bere jarrera ona konpromezu horrekiko. Gaur egun aitepontekoak badira ere ohiturari

jarraitzen diotenak, adinekoen memorian dago oraindik karapaixoa ezkongaien artean oparitzeko ohitura.

Kristautasunaren etorrera eta ezarpenak, besteak beste, ogi eta erritu pagano hauekin topo egin zuen eta erritu horiek edukin kristaua emanaz bereganatu zituen. Zentzu honetan, garbi dago karapaixoak Garizumarekin duen erlazioa kointzidentzia kronologikoa baino ez dela, biak udaberri hasieran betetzen dira eta.

Arrasate Press
93-04-1



Goiko galdera horri erantzun nahian Joakin Jauregi okinarekin izan gara. Berak kontatu dizkigu karapaixoaren kontutxo batzuk.

- **Betidanik egin izan dituzue karapaixoak?**
Nik gogoratzen dudala behintzat bai.
- **Zenbat urte daramatzazu karapaixoak egiten?**
Ni hona etorri nintzala 46 urte dira. Oraindik mutil koxkorra nintzela, 10-11 bat urte nituela aitak ohera joan aurretik txoritxoak egiten jartzen gintuen gero arraultzari gainean jartzeko
- **Erreza da txoritxo horiek egitea?**
Erreza dena da ikasi ezker.

Zer berri dugu karapaixoaren inguruan Atxabaltan?

- **Zenbat motatako karapaixoak egiten dituzue?**
Bi motatakoak egiten ditugu, boilozkoak eta ogizkoak. Gero mota bakoitzaren barruan desberdinak egon daitezke enkargatzen denaren arabera.
- **Zer osagarri jartzen diozue karapaixoari?**
Ogiz eginiko karapaixoari arraultzak, txorizoa eta batzutan sagarra ere bai. Boilozko karapaixoari aldiz txokolatzeko arraultzak.
- **Desberdintasun handia dago lehengo eta oraingo karapaixoen artean?**
Ez, guk berdin berdin egiten ditugu. Boilozko karapaixoak ere aspalditik egiten ditugu.
- **Karapaixoa oparitzeko ohitura galdu egin da?**
Bai, eta asko gainera. Ni mutil koxkorra nintzanean etxe batera karapaixoa eramatea gauza handia zen, lehen jatekorik ez zegoelako. Orain berriz ez da hortela gertatzen.
- **Boilozko karapaixoak ala bestelakoak saltzen dira gehiago?**
Erdi eta erdi gutxi gorabehera, agian ogizkoak pixka bat gehitxoago..
- **Zer dakizu karapaixoaren historiari buruz?**
Nik aditutakoa da hemengo bailara honetako ohitura dela aitepontekoek bere besoetakoei karapaixoa egitea.
- **Zer motatako jendeak erosten ditu gehienbat karapaixoak?**
Jende nagusiak. Gehienbat euskaldunek daukate ohitura hau, ez horrenbeste erdaldunek.

Nesken lehen partidua eta garaipena Ibarrañ



Otsailaren 26an jokatu zen lehen partidua Ibarrañ futbol zelai berrian. Gainera U.D.A.ko neskei tokatu zitzaien lehen partidua bertan jokatzeari. Aspalditxoan partidurik irabazten ez bazuten ere, partidu honetan garaipena lortu zuten. Bergararren kontra jokatu zuten eta.

hiru eta bateko emaitzak bukatu zen partidua. Lehengo gola Nerea Etxandiak sartu zuen U.D.A.ko presidente den Bixente Etxeandiaren alabak. Hurrengo bi golak Anabelek sartu zituen.

Ea ba, aurrerantzean ere indartsu jarraitzen duen nesken taldeak.

FUTBOL EMAITZAK

1º ERREGIONALA

Zumaiako 2 ARETXABALETA 1

1º JUBENILA II

ARETXABALETA 0 BERGARA 0

SASKIBALOI EMAITZAK

KADETEA EMAKUMEZKOAK

- A taldea -

ALMEN 37 HIRUROK 29

-B taldea -

ALMEN 54 ONDARTZA L. 29

XAKE EMAITZAK

PREFERENTE MAILA

ARETXABALETA 2 ANDOAIN 2

PELOTA EMAITZAK

OHOREZKO MAILA

ERRASTI 18 BALERDI 14

EROSKI KONSUM

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

BITXITEGIA

MIREN & ZURINE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrean
Tfnoa: 77 13 57

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87


*Okindegia - Gorrolegia
Panaderia - Pasteleria*

Aretxabaleta

Mitarte, 1 - Tfno. 77 00 81

Aretxabaleta

Obrador Propio



EGUZKIGRAF

Aldizkariak
Inpresok
Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa: 943- 79 18 44 Faxa: 943- 79 29 41

FELIX PAGALDAY

Deba Garaiko
Biona

Pentsuen Banatzailea
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33

MATIKUA Taberna

Aozaratza auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABALETA

ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

European Ibarako inauguraketa

U.D.A.eta Eskoriatzaren futbol partidua-rekin inauguratu zen Ibarra futbol zelaia joan den domekan, hilaren 5ean. Partidu kaskarra eskaini bazuten ere eskoriatzarrak suertatu ziren irabazle 0 eta 2ko emaitzarekin. Oso eguraldi txarra egin zuen baina hala ere, entrada ona egon zen eta lagun mordoa bildu zen partidua eta inauguraketa ikusteko.

Partidua jokatzeko hasi baino lehen, komiteta, Udaleko zinegotziak, Juan Luis Larrea (Gipuzkoako Futbol Federazioko Lehendakaria), U.D.A. eta Esko-



Don Bitorianok zelaia bedeinkatu zueneko unea

riatza kirol elkarteko batzorde buruak eta jokalaria zelaiaren erdira irten ziren txistularien doinupean.

Futbol zelai erdian zeudela **Anton Marti-**

nez de Agirrek zinta moztu zuen eta bi dantzarik Agurra dantzatu zuten. Ondoren, Don Bitorianok bedeinkatu zuen zelaia eta oho-rezko sakea Anton

Martinez de Agirrek egin zuen, berori dugu U.D.A.k izan duen lehendakari zaharrena.

Partidua hasi aurretik minutu bateko ixilunea gorde zen Goio Arrieta U.D.A.ko entrenatzailea den anaiaren heriotzaren oroimenez.

Anton Martinez de Agirre

Antonio Martinez de Agirre izan zen U.D.A. Taldeko sortzailearik bat. Hasiera batetan U.D.A.ko lehen idazkaria izan zen. Ondoren urte batzutura lehendakari izatera pasa zen. zuzendaritzan 13 urte eskaini dizkio U.D.A.ri.



Bost taldetan banatuta egongo dira aurtengo txirrindulariak

Dorletako Ama Txirrindulari Eskolaren aurkezpena

Joan den zapatuan, hilaren 25ean, egin zuen Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak taldeetako kide eta babesleen aurkezpena. Dorletako Santutegian egin zen meza eta Amabirginari lore eskaintza. Ondoren kide eta babesleen aurkezpena Gure-Ametsa jatetxean burutu zen.

Aurtengo patrozinatzaileak hauek izango dira: Fagor, Alejandro Altuna, Ford Mugarri, Arrasate Kiro-lak eta Sport Sasiain. Beraz, bost taldetan banatuta egongo dira aurten hasiko diren 45 txirrindulariak: lehen eta bigarren mailako jubenilak, lehen eta bigarren mailako kadeteak eta, azkenik, infantilak.

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

Dorleta Taberna

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparagirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABAleta



IBARRA ESTANKOA

Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77


ANTZERKI TAILERRA



Haur hezkuntzan haurrek euren gorputzaren bidez, esperientzi eta manipulazioaren bidez beregatatzen dituzte ahalmen desberdinak. Honela, antzerkia dela medio, haurrek gorputz adierazpena, ahozko mintzaira, komunikazioa, plastika eta abar lantzen dituzte.

SANTA RITA IKASTETXEko 5 urtetako haurrek "antzerki tailerlean" egin duten azken lana aurkezten da ondoren. Antzerkiaren izenburua "Ipurtargia" da. Hona hemen bertan burutu dituzten ekintza desberdinak:

- Ipuia entzun, ulertu eta ikasi
- Elkarriketen entonazio desberdinak aztertu
- Gorputz adierazpena landu
- Ipuiari dagozkion dekorazioak erabaki eta margotu
- Ipuia beste haurrei antzetzu
- Landutakoa adierazpen grafikoaren bidez adierazi (marraskia)



"Ipurtargiari animalia guztiek barre egiten zioten bere ipurdiko argiarengatik. Baina egun batez, gaua iristean, tximeleta, barraskiloa eta kilkerak etxerako bidea aurkitu ezin eta ipurtargiak bere ipurdiko argia piztuz bidea erakutsi zien. Harez gero, guztiak oso eskerturik zeuden ipurtargiari". Ezkerrean dagoen marraskia hau 6 urtetako Janire-k egin du.

MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA

PORTASOL AROZTEGIA

Basabe Poligonoa, 1
Tfnoa: 79 34 84

AMIETS TABERNA

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
ARETXABALETA

ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ☎ 79 32 34
ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
Elektra-instalaketak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA


Zerbitzuak

Diagnostikoa-Orientazioa

Logopedia

Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
☎ 79 47 77 ARRASATE



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri, 3 ARRASATE
Tfnoa: 77 11 30

1490-ARVINCELAYETTA 1995-ARBIZELAI



Arbizelai baserria, momentu honetan botata dagoena

Azken bostehun urtetan atxabaltarrok, toponimiko hau antzera xamar ezagutu eta erabili dugu. Paper zaharrek diotenez, 1490. urtean, hau da Kristobal Kolon, ameriketara heldu baino urte pare bat lehenago, atxabaltar eta eskoriatzarrik, hau da Leintzarrok, mugarriketa bat bururatu/egin zuten.

Argitu dezagun, garai hartan, Eskoriatza gehi Atxabalta baserri auzo guztiek Leintz Erret Bailara osatzen zutela.

Eta mugarriketa hau zer dela eta? Ba..., muga inguruetan bizi ziren zenbaitzuk mugarriak tokiz aldatuz, euren lur soroak haundituz joan zirela. *“...somos certificados que los mojones antiguos que esttaban puesttos, los han dorrotado è puesto ottros mojones mas arriba para fazer Heredades propias algunos vecinos e moradores que viben e moran en las Casas è Caserias en los fines e confines de las ttales tierras è Monttes e Pasttos comunes”*.

Guzti honetaz oharturik, Leintz Bailarako agintariek, mugarriak ikusi eta aztertzea erabaki zuten. *“Para que sobre el cargo del juramento è juramenttos que delas ttales persona è personas juraren en forma puedan apear et declarar è por donde son è heran los dichos monttes è Pasttos...”* Bildu ziren Atxabaltako Plazan *“e junttos segun q. lo havemos de uso, è de costtumbre en nuestro Concejo è Juntta General por llamamiento de campañas repicadas en la Plaza de Arechavaletta”*.

Eta San Martin-go elizan zin egin ondoren (gaurko San Martin auzoan) *“sobre juramento que fiziesen en Santt Martin de Ybarra, Yglesia juradera de la dicha tierra è Valle de Leniz”*, lanari ekin zioten. Nonbaitetik hasi behar... eta nondik? Ba... ARVINCELAYETTA-tik.

Egun batzuk dela, Arbizelai baserria bota dute. XV. mendean bertan bizi ziren *“Maria Martinez de Arvincelayetta, Maria Perez su fixa è Maria Lopez de Arvincelayetta”*-k, XX. mende honetara itzuli eta Arbina errotako ur-malato ingurutik pasatzeko aukerarik balute *“atteniente ala azequia de agua que ba para el molino de Arbina”*, euren izerdi, odol eta nigarren lekukoa birrindu eta jota ikusterakoan, barruaren zirrarak malkoz beteko lituzke euren begiak. Inguruan bildutako Lope Garcia de Galartza, Pero Martinez de Astarrettazabal, Ochoa Perez Doro, Juan de Aranguttia, Juan Martinez de Echabe, eta Garcia Ybañez de Basabek esan digutenez/zigutenez, ARBINA, ez da guk ezagutzen dugun arbia.

Hau argitzeko, On R. Maria de Azkuerengana jo dugu, eta berak azaldu digunez, ARBINA hitzak HESTU esan nahi du; izan ere toki horretan bailara hestutu egiten da eta erreka/bide artean sor daitezkeen lur/zelai lauak, hestua dira. Hitza, Humboldt-ek jasotakoa da.

Iñaki Urreta Leturiondo
Aitor Antxia Leturia

Euria goitik behera



J.J. Aretxaga

Bedeinkatu digute futbol zelaia. Lehenengo **Bitorianok** bedinkatu zuen. Eta geroztik euriak ederto bedeinkatu du zelai artifizialari. Inaugurazio ekintzan ohorezko sakea **Anton Martinez de Agirrek** egin zuen, bizirik dagoen UDAko lehendakari izandakorik zaharrenak. Eta lehelengo partiduan, galdu. Bueno galdu, mutilak. Baina futbol zelai horretan jokatu den lehelengo partidu ofiziala neskena izan zen, inauguratu aurretik, eta irabazi egin zuten. Lehelengo partidu horretan, arbitroa be atxabaltar bat izan zen, **Jose Antonio Zangitu**. Lehelengo gola, **Nerea Etxeandiak** sartu zuen. Bixente presidentearen alabak.

Herrian badauzkagu misiolari sonatuak. Orain dela pare bat urte hemen aipatu genuen **Pedro Galdos** Venezuelen dagoen misiolari

hango mendietan hazaina bat egin zuela. Orain heldu zaigu barria: Venezuelako Presidenteak "Honor al merito deportivo en su primera clase" izendapena eman dio. Lehenengo aldia ei da Venezuelen mendizale bati kondekorazioa ematen diotena. Hogeita hamar urtean ibili da Pedro mendizaletasuna lantzen eta bere ikasleei mendia eta natura maitatzen irakasten.

Badakizue herrian bertsolari gazteak be badirela, 20 urtetik beherakoak. Horrelako asko daude Euskal Herrian eta zaila izaten da saioetarako aukera izatea. Jakin dugunez, **Saioa Arando** atxabaltarrak datorren astean Bergaran kantatuko du bertso-afari batean. Barri ona, bertsolaritzan gazteak eta emakumeak ikusi gura dituztenendako.

Izan be emakumearen eguna pasatu barri daukagu. Egunak beti motz geldiketan dira baina gauzeekin akordetako eta ospatzeko behintzat balio dute. Loramendiko **Trill** emakume taldeak afari bat antolatu zuen edade guztietako emakume atxabaltarrendako. Normala den moduan, ez nintzen izan.

Baina Urkulura fan nintzen. Gauza edarra benetan ura gainezka ikustea. Ia urtero horrelaxe ikusten dugun.

A R E T X A Z O K A

LANA

- Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko esperientziadun neska prest dago. Deitu, 79 96 10 telefonora. (Maritxu)

- Instalazio merkeak egiten dira:
 - Oholtza
 - Lixaketak
 - Barnizatuak
 - Parketa
 Deitu telefono hauetara: 79 65 25
79 07 62
71 63 95

BESTELAKOAK

- Informatikako ikastaro praktikoa Atxabaltan. Windows.
 - Windows (sistema eragilea)
 - Word (idazlana)
 - Access (datu basea)
 -40 ordu
 - Diploma kreditatzailerak
 - Talde murrizketak
 - Merkea,
 Gehiago jakin nahi baduzu deitu 67 40 05 telefonora.

ETXEBIZITZA

- Pisu bat salgai dago Bedarreta auzoan eta garaje bat Murubiden.. Deitu: 79 80 27 telefonora, eguerdiko ordu letatik ordubietara bitartean edo arratsaldeko 7etatik aurrera.
- Jantzitako etxea alokatzen da. Zaraia, 2 3. pisua. Telefonoa: 79 17 08

SALEROSKETAK

- Bigarren eskuko R-11 bat salgai dago. Matrikula SS-V. Motorra: 1.700. Egoera onean dago. 250.000 pta, negoziagarriak. Interesatuak deitu: 79 20 94 telefonora eta Xabierrez galdetu.
- Atal honetako iragarriak dohainik dira, beraz, iragarkirik jarri nahi izanez gero deitu ondorengo telefonora: 79 01 05**

Saioa Arando

“Bertsotan azken puntuak fuertea izan behar du”



Saioa Arando

Saioa Arandok 19 urte ditu. Almenen ikasten zebilela hasi zen bertsotan eta ordutik hor ari da Euskal Herri osoan zehar bertsotan. Momentu honetan plazetara aurkeztu nahi ez badu ere, afarietan eta bestelako saioetan kantatzen jarraitzen du.

- **Zer behar da bertsotan aritzeko?**
Gogoia bakarrik.
- **Beti hasi behar da bertso bat bukaeratik?**
Bai, azken puntua aseguratuta eduki behar da, fuertea izan dadila.
- **Zein bertsolari gustatzen zaizu gehien?**
Egaña fenomeno bat da, Ion ere gustatzen zait. Gazteetan Iturriaga eta Irazu.
- **Bertsotarako duzun kualitatetik onena zein da?**
Arrazoia eta bukaera. Gauzak ondo arrazoitzea gustatzen zait, baita bertsokera alaiak egitea, hau da, gai serioei irtenbide alaiak bilatzea.
- **Nola entrenatzen zara bertsotan?**
Normalean beste batekin entrenatzen dut, baina honetaz aparte mila historio dira, kultura haundia izan behar duzu, sinonimoak jakin eta abar.
- **Ikasketak eta bertsolaritza batera eraman daitezke?**
Bai, hori bakarrik izango balitz bai.
- **Zein da asko erabiltzen duzun esaera zahar ba?**
Ai Jaungoikoa bat bakarra eta bera nahikoa.
- **Bertsoz konkistatu duzu inoiz mutilik?**
Ez, baina inguratu bai eta oso desagradablea da.
- **Bertso inguruko anekdotarik baduzu?**
Behin “Kilometroa”n mutil bat etorri zitzaidan eta mutil batek neska bati bertso saio batetan kantatu zion bi bertsotatik lehena kantatu zidan. Kasualitatez nik bi bertsoak nekizkien eta nik bigarrena kantatu nion eta oso ondo egon zen.
- **Zerk lotsarazten zaitu?**
Norbaitek niri buruz jendeaurrean ondo hitzegiteak.
- **Zure akats bat...**
Gauza asko egin gura izatea eta dena ezin egin izatea.
- **Zure bertute bat...**
Gauza asko egiten ditudala.



Ane Miren Güemes da aurreko alean saritu suertatu zena.

On egin!

ARETXAGAZETAKo bazkide batek, beste lagun batekin, **Ibarra Jatetxean** afaltzeko aukera izango du. Horretarako galdera ondo erantzun beharko duzu. **Erantzuna aldizkarian bertan aurkituko duzu, beraz adi adi irakurri ezazu.**

Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean dagoen buzoian) egon beharko dute datorren eguna baino lehen.. Animatu zaitezte eta idatzi afari goxo bat dastatzeko aukera duzue eta.

IBARRA JATETXEA

Araba Ibilbidea, 29 ARETXABALETA 20550
Telefonoa (943) 79 69 86 (Gipuzkoa)

Zer dela ta ematen dio Zaitapontekoak bere besoe-takoari karapaixoa?

a.- Garizuman sartu garela adierazteko.

b.- Berarekiko jarrera ona azaltzeko.

d.- Urteko eskupeko moduan.

Aurreko asteko erantzuna, “onddoak” zen.

Erantzuna:

.....

Izena:

Kalea:

Tfnoa:

BERGARA



Martxoak

ERAKUSKETA

Martxoaren 6tik 21era Emakumeei buruzko argazkien lehiaketako erakusketa izango da Udaletxeko Areto Nagusian.

Martxoak 10, eguakotxa

BERTSO AFARIA

Ainhoa Agirreazaldegi eta Saioa Arando bertsolariekin, gaueko 9etan, Artatze Elkartean.

Martxoak 12, domeka

ANTZEZLANA

Ozanga-ren "Bihozkadak" antzezlan. Arratsaldeko 19:30etan, Zabalotegi Aretoan.

Martxoak 17, eguakotxa

MISERABLEAK

Bergarako Musika Eskolak X. urteurrenari **azken agurra** emango dio. Ekitaldia Amaia Antzokian Arrasaten izango da 22,30etan.

OÑATI



Martxoak 12

KONTZERTUA

Arratsaldeko 7,30etan Santa Ana Antzokian Donostiako Musika Eskolako piano ikasleen kontzertua izango da.

Martxoak 17, eguakotxa

ANTZERKIA


Gaueko 10,30etan Santa Ana Antzokian **BEDEREN 1** taldeak eskainitako antzezlan.

Martxoak 18, domeka

KONTZERTUA

Arratsaldeko 8,00etan Santa Ana Antzokin **kanto gregorianoa**: Aretxabaleta, Samaniego eta Araba Abesbatzetako zenbait kidek osaturiko **CORO GREGORIANOK** eskeinutako kontzertua.

ARRASATE



Martxoak,

KIROLA

Martxoaren 11, 18 eta 25ean **EUSKAL PILOTA JOKU ZAHARRAREN EZAGUTZA**. Izena emateko kiroldegian. **DIPUTAZIOKO ESKI KANPAINA**: 15-29 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Martxo osoan zehar astebeteko irteerak. Informazio gehiagorako: gazte informazio bulegora deitu 77 00 65

ERAKUSKETAK

Martxoaren 1etik 17ra, "**TXOTXONGILO ARTEGINTZA**" erakusketa. Corrado Masacci-ren bilduma. Harresi aretoan egongo da ikusgai. Martxoaren 7tik 16ra, "**EUSKAL SOINU TRESNEN ERAKUSKETA**" egongo da Monterron Kultur Etxean.

Martxoak 10 eta 11

FOLK ASTEBURUA

20,00etatik aurrera Sebero Altube Plazan eta 22,30etatik aurrera Musakolako kiroldegian.

Martxoak 12 domeka

KANTALDIA

Arratsaldeko 7etan Amaia Antzokian AEKK antolatutako kantaldia, **Benito Lertxundi** eta **Egañaren** eskutik.

Martxoak 16, eguena

HITZALDIA

Arratsaldeko 6,30etan "REIKI BIZITZAREN KEMEN UNIBERTSALA" Monterron Kultur Etxean.

Martxoak 17, eguakotxa

ZINEA

Gaueko 9,30etan Amaia Antzokian **ARTESZENA** antzerki taldearen "**MEPHISTO**" antzezlan.

Berrikuntzak



MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparragirre, 4
Tfnoa. 79 21 24

"HERRASTI" AKEITA



Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83

LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69

ARETXABAETA



Martxoak 11, zapatua

AFARIA

Emakumeen eguna ospatzeko Trill Emakume Taldeak afaria antolatu du. Matikua Jatetxean izango da eta adin guztietako emakume atxabaltarrentzat zuzendua dago. Ordaina 2.000 pezetakoa izango da. Izen ematea Loramendiko lokalean edo 77 09 70 telefonora deituz.

MENDI IRTEERA

Murrukixo Mendizale Elkarteak **Aiako Haitzetara** irteera antolatu du. Irteera goizeko 8etan izango da Partenoitik. Bazkaria sagardotegian egingo da, 2.500 pezeta izango da. Apuntatzeko Arlutzen eta besterik gabe animatu zaitezte.

KORRIKAREN AURRE-EKINTZA

Ortzadar taldearen laguntzarekin nahi duten haur guztiek 2,30etatik 4,30etara bitartean Ortzadarren lokalean bildu eta muralen marrazketa egingo dute. Ondoren herrian edo plazan jarriko dira.

Martxoak 12, domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Ibilaldia ondorengoa izango da. Aretxabaeta - Eskoriatza - Bariantea - Bergara - Soraluze - Bergara - **Aingeruzar** - Bergara - Aretxabaeta. Guztira **58 km.** egingo dituzte. Irteera goizeko 10,00etan izango da Zاراia, 4 kaletik.

Martxoak 12, domeka

MENDI IRTEERA"

ZARAIA M. Taldeak Errialtabasora egingo du irteera. Irteera 8:30 izango da Zاراia 4 kaletik.

Martxoak 18, zapatua

PATINAJE IKASTAROA

Goizeko 9,30etatik eguerdiko ordu bietara izango da kirol etxean. Deba bailarako kirol zerbitzuak antolatuta dago. Hurrengo ikastaroa apirilaren batean izango da.

Martxoak 19, domeka

U.D.A.-OIARTZUN K.E.

Ibarran izango da arratsaldeko 5,00etan

Martxoak 22, asteazkena

KORRIKA TXIKIA

Ikus egitarau berezia.

Martxoak 23, eguna

KORRIKA

Goizeko 6:30etan Gellaotik etorriko da KORRIKA. Ez gero ohean lo gelditu. Jaiki, aurpegia garbitu eta denok euskeraren alde ańiketan egitera. **"Jalgi hadi plazara!!!"**

DEGABEL, Deba Garaiko

Abelazle Elkarteak, ohizko bilkura orokorrerako deialdia egiten du. **Eguna:** Martxoak 12, domeka. **Ordua eta Tokia:** Goizeko 11etan Eskoriatzako Kultur Etxean. Lehengo deialdia goizeko 11etan izango da eta bigarrena goizeko 12etan.

BEHARREZKO TELEFONOAK



Aretxabaeta

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	77 45 67
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi K.E.	77 0970
• Murrukixo M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otalora	79 79 99

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	76 14 69
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 18
• Larrialdiak (Arrasate)	79 13 57
• Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkarte	79 87 77
• Deba Garaiko Udal Elkarte	79 33 99
• SOS Deiak	088

IMANOL JANARI DENDA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABAETA

LEIBAR ARRAINDEGIA

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABAETA



Errealitateak fikzioa gainditzen duenean.



Escort'95 berria



Batzuetan errealitateak espektatiba guztiak gainditzen ditu. Baita Escort'95ak ere. Automobil klase berria. Oso estilo jakinekoa. Ibilian, fikziozko munduan zaudela usteko duzu bere ixiltasuna eta dardara eza direla eta, baina errealitatea da. Bere suspentsio sistema berriak eta direkzio lagunduak, suabea eta arina egiten dute bidetan Escort berria.

Bere segurtasuna sistema aktibo eta

pasiboaz gain, gainera, lapurketen kontrako finkatzaile elektroniko sistema berria.

Escort berriak Zetek 16 V. edo Turbodiesel motore aurreratuak ditu eta aukera zabala 3,4,5 ate eta Nomade eta Cabrio modeloetan. Proba ezazu zure Banatzailean. Orduantxe ulertuko duzu errealitateak zergatik gainditzen duen fikzioa.



Ford guztion
segurtasunerako

Informazioa eta proba 900 51 51 51

MUGARRI

